

GOBELAURRE
boluntariotza-zentroa

**LOKALAREN ERABILERA LAGATZEKO
DEIALDIA**

1. artikulua: XEDEA.

Deialdi honek xede du erabilerarako lagatzea Gobelaurreko lokaletako aldi baterako egoitzak eta aldi baterako jardueretarako espazio komunak.

Lokalak erabiltzeko Araubideak, 2630/2018 Dekretuz onetsitakoak, arautuko du lagatzen diren lokalen erabilera.

Haatik, ez dago deialdi honen xedearen barruan noizean behingo jarduerak egiteko espazioen erabilera lagatzea. Izan ere, erakundeek zerbitzu hori urte osoan zehar eskatu ahalko dute, eta espazioak eta ordutegiak libre badaude lagatuko dira.

COVID-19k eragindako salbuespenezko egoera dela eta, ebazpenak aldatu edo baliogabetu ahal izango dira.

2. artikulua: ZEIN ERAKUNDERI ZUZENTZEN ZAION.

Gizarte-ekintzaren hirugarren sektoreko enpresei, udalaren gizarte-zerbitzuen eskumen-eremuaren barruan dihardutenak eta 2630/2018 Dekretuak ezarritako betekizunak betetzen dituztenak.

3. artikulua: ERAKUNDEEN BETEKIZUNAK.

Erakundeek Gobelaurreko boluntariotza-zentroko lokalak erabiltzea eskatu ahalko dute, honako betekizun hauek betetzen badituzte:

- Legez eraturik badaude.
- Berezko nortasun juridikoa badute.
- Ez badaukate dirua irabazteko asmorik.
- Getxoko Udalaren edota Eusko Jaurlaritzaren elkartean / fundazioen erregistro(et)an egoki inskribatuta badaude.
- Getxoko Udalarekiko betebeharrak egunean badauzkate (laguntzen justifikazioak, zorrak...), baita zerga-betebeharrak (Ogasunarekin) eta Gizarte Segurantzarekikoak ere.
- Gizarte-izaerako helburuak lortu nahi badituzte, berdintasuneko eta gizarte-justiziako irizpideei jarraikiz eta giza eskubideak erabat errespetatuz.
- Parte hartzeko egitura irekiak badauzkate, eta jardunean gardentasuneko eta parte-hartze demokratikoko irizpideak baliatzen badituzte, elkarteko kideen edota boluntarioen koordinazioa, erantzunkidetasuna eta protagonismoa sustatuz.

Deialdi honetatik baztertuta daude kulturari, kirolari, gazteei eta talde politikoei lotutako erakundeak, bai eta sindikatu- eta enpresa-elkarteak ere.

4. artikulua: ERABILERA-MOTAK.

4.1. Aldi baterako egoitzak: espazio horiek bereziki prestatu dira Getxo udalerriko gizarte-erakundeen behin-behineko bulego izateko. Haien helburua erakundearen ohiko barne-jarduera kudeatzen eta garatzen laguntzea da.

Lagapenek urtebete iraungo dute, eta hiru urtera arte luzatu ahalko dira.

4.2. Aldi baterako jardueretarako espazio komunak: espazio horietan, erakundeek epe luzea eskatzen duten jardueren eguneroko dinamikak egin ditzakete, urtebetez gehienez ere, hala nola tailerrak eta prestakuntza-ikastaroak.

Espazio horiek, gehienez ere, urtebetez lagako dira.

5. artikulua: LAGAPEN-PROZEDURA.

5.1. Eskaera:

Gobelaurreko boluntariotza-zentroko lokalak erabili nahi dituzten erakundeek **eskabidea aurkeztu** beharko dute, eredu normalizatuan:

- DN 19 (aldi baterako egoitzen kasuan).
- DN 330 (aldi baterako jardueren kasuan).

Eskaerak aurkezteko epea 2020ko irailaren 28an amaituko da.

Eskabidean, gutxienez, ondokoak agerrarazi beharko dira:

- Erakundearen identifikazio-datuak.
- Harremanetarako datuak.
- Lokalaren erabileraren arduraduna.
- Egin nahi den erabilera-mota.
- Aldi baterako eta noizean behingo jardueren kasuan:
 - Egingo den jarduera.
 - Jarduera bakoitzean parte hartuko duen pertsona-kopurua.
- Lokala erabiltzea eskatuko den egunak eta orduak, hala badagokio.

Gorago adierazitako datuez gain, erakundeek eskabidearen atzealdean adierazitako datuak eta agiriak (I. eranskina) aurkeztu beharko dituzte eskaera egitean:

- Erabilera-araubideari buruzko agirian ezarritako baldintzak errespetatuko direlako zinpeko deklarazioa.

- Erakundearen estatutuen kopia (arestian aurkeztu izan ezean).
- Dagokion erregistroan inskribatuta dagoelako ziurtagiriaren kopia (arestian aurkeztu izan ezean).
- Erakunde eskatzailearen IFZ zenbakiaren kopia.
- Erakundearen ordezkaritza-organoen adierazpena, non honako hauek jasotzen diren: Zuzendaritza Batzordea nortzuk osatzen duten eta elkarteko kide-, boluntario-, kolaboratzaile- eta profesional-kopurua (eguneratuta).
- Elkarreak barne hartzen dituzten oinarrizko federazio, konfederazio, koordinatzaile, sare eta bestelako oinarrizko taldeek beren kide diren elkarteei igorriko diete aipatutako ziurtagiria, non, besteak beste, izen-zerrenda adieraziko duten.
- Erakundeak eskabidea aurkeztu aurreko urtean garatu dituen jardueren memoria.
- Azken ekitaldiko erakundearen memoria ekonomikoa.
- Lokalaren erabilera lagako den urterako jarduera-proiektua.
- Erakundearen **erantzukizun zibileko aseguruaren eta istripuetarako aseguruaren** kopia. (Agiri horiek lokala adjudikatu eta **hilabetera** aurkeztu beharko dira).
- Zerga-betebeharrak (Ogasunarekin) nahiz Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituelako ziurtagiriak (edo, hala badagokio, horietatik salbuetsita egotearenak).

Getxoko Udalak erakunde eskatzaileei eskatu ahalko die beharrezkotzat jotzen dituen beste agiri edota informazio osagarri, aurkeztutako eskabidea egoki ulertu eta ebaluatzeko. Era berean, eskatutako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko egokitzat jotzen duen adina datu eskatu ahalko die.

Halaber, eskatutako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko egokitzat jotzen duen adina datu eskatu ahalko die erakunde interesdunei. Betekizun horiek betetzen dituztela eskabidea aurkeztean egiaztatuko dute, hala badagokio, eta, edonola ere, lagapena ematean eta udalaren lokalak erabiltzen dituzten denbora guztian.

Hala badagokio, eskabidea aurkeztean egiaztatuko dute betekizun horiek betetzen dituztela, baita udalaren lokalak erabiltzen dituzten denbora guztian ere.

Eskabideak nahiz dokumentazio osagarria, aurreko hitzorduarekin, aurkeztu ahal izango dira.

- Udalaren Gizarte Zerbitzuetan (Urgull kalea z.g., 2 solairuan).
- Administrazio Elektronikokoaren Bulegoaren bidez, www.getxo.eus helbidean.

Eskabideak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan aurreikusitako moduan ere aurkeztu ahalko dira.

5.2. Eskabidea zuzentzea:

Eskabideak eskatutako betekizunak bete ezean, erakundeari **eskabidea zuzentzeko** eskatuko zaio, eta ohartaraziko zaio hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela

ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ezarritakoari jarraikiz.

5.3. Ebazpena:

Getxoko Udalak **Alkatetzaren Dekretu** baten bidez ebatziko du nola banatzen duen lokalen erabilera erakunde eskatzaileen artean.

Dekretu horretan zehaztuko du, halaber, zein ordutegitan erabili ahalko dituzten erakundeek.

Udalak, egokitzat jotzen badu, lokalen banaketa zein erabilera-ordutegia lagapen-aldian zehar aldatu ahalko ditu, herritarrei zerbitzu hobea eskaini edota hasieran aurreikusi ez diren egoerei aurre egiteko asmoz.

Eskaerak, gehienez ere, bi hilabeteko epean ebatzi beharko dira, dokumentazioa aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita. Ebazpenik ezean, eskabideak ezetsi egin direla ulertuko da.

Ebazpenak bide administratiboa agortuko du. Horren aurka, erakunde interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko dute ebazpena eman duen organoaren aurrean, eta egokitzat jotzen duten beste edozein errekurtso ere jarri ahalko dute.

5.4. Ebazpena aldatzea:

Lokalen eta egoitzen erabilera lagatzeko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik eginez gero, ebazpena aldatzea ekarri dezake, baita egindako lagapena amaitzea ere.

Getxoko Udalak berarentzat gorde du egoitzen eta aldi baterako jardueretarako espazioen lagapena aldi batean eteteko ahalmena, ekimen zehatzak egiteko espazio-beharrak asetze aldera.

6. artikulua: BALORAZIO-IRIZPIDEAK.

Kontuan izanik egoitza-erabilerak eta aldi baterako jardueretarako erabilerak helburu desberdinak dituztela, adjudikazioan aplikatuko diren irizpideen haztapena desberdina izango da erabileraren arabera.

Bi kasuotan, eskabideek 100 puntu eskuratu ahalko dituzte gehienez ere.

	ALDI BATERAKO EGOITZAK Gehienezko puntuazioa	ALDI BATERAKO JARDUERAK Gehienezko puntuazioa
Erakundearen egitura eta hura ezartzea: <ul style="list-style-type: none"> • Kide-kopurua. • Getxotar-kopurua. • Parte hartzeko egitura irekiak. • Eskura dituen berezko baliabideak eta beharrak. • Antzinakotasuna eta esperientzia. 	20	30
Garatuko dituen programak eta jarduerak: <ul style="list-style-type: none"> • Proiektuaren argitasuna eta kalitatea. • Helburuak eta udalaren gizarte-zerbitzuen helburuekiko bateragarritasuna. • Proiektuak garatzeko gaitasuna. • Eragina udalerrian: zenbat herritarri ekarriko dien onura. • Eragina eta ikusgaitasuna. • Genero-ikuspegia. • Kultura-artekotasuna eta euskararen erabilera. 	75	60
Sarean lan egitea. SAREKIDE; Getxoko boluntariotza-erakundeen elkarteko kide izatea edo Etorrinak Plataformakoa.	5	5
Jardueren egokitasuna, lokalen ezaugarriei dagokienez.		5

Aldi baterako egoitzen kasuan, lehentasuna izango dute adjudikazioan erakunde koordinatzaileek, federazioek eta bestelako elkarte-taldeek; era berean, kontuan hartuko da erakundeek egoitza beste erakunde batzuekin partekatu dezaketen.

Aldi baterako jardueretarako espazioen kasuan, aldiz, lehentasuna emango zaie SAREKIDE; Getxoko boluntariotza-erakundeen elkarteko kide direnei eta egoitza erdigunean daukatenei. Nolanahi ere, aldi baterako jardueretarako espazioen % 50 elkarte horien artean banatuko dira.

7. artikulua: ARAUBIDE JURIDIKOA.

Agiri honetan jaso ez diren gainerako alderdi guztietarako, Lokalak erabiltzeko Araubidea aplikatuko da, Alkatetzaren 2630/2018 Dekretuaren bidez onetsi zena.

Getxo, 2020ko irailaren 10a

Mikel Kerexeta Kortabarria
Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaria
Director de Servicios Sociales